Bestalde, ikasgelaren barruan bizipenak eta oroitzapenak adierazteko eta partekatzeo aukera emango da, kandela baten inguruan, edo eskuak zirkulu estu batean lotuta, esaterako. Ikasgelan, modu desberdinetan landuko da heriotzaren gaia.

Idatzizko adierazpenaren bitartez, gutun kolektibo bat egitea edota gutun pertsonala egitea proposatzen da. Kontatu gabe geratu zaien hori kontatzeko gune bat eskeintzeko. Beti positiboki eta pertsona horren oroitzapen maitekorretik. Gutunez gain, bertsoak, poemak edota abestiren baten hitzak idatzi dezakete, hildakoaren bizitzeko historioren bat aipatu daiteke, etab.

Adierazpen artistikoaren bidez, marrazki pertsonalak, muralak, mandalak, etab. sortu daitezke. Horrela, sentimenduak inolako mugarik gabe adierazi daitezke eta hauei izena jarri. Irakasleek emaitzak interpretatu dezaakete, hauek, ikasleen sentimenduak nola dauden ulertzen lagundu dezake. Musikari dagokionez, esan bezala, abesti bat prestatu daiteke, gustuko musika bildu eta entzun, etab. Atal honetan, omenaldirako giroko musika prestatzea edota abesbatza bat antolatzea aholkatzen da. Antzerkia edo mimoaren bitartez, hildakoarekin bizitako kontakizunen bat edo egun horietan bizitako sentimenduei buruzko zerbait antzeztu daiteke. Ikus-entzunezkoaren bidez, argazkiekin, bideoekin eta baita egun hauetako prestaketekin ere bideo-aurkezpen bat egin daiteke, honela, bizitakoa adierazteko eta horri buruz hitz egin ahal izateko gune bat sortu daiteke, bideo hau familiari eman ahal zaio bukaeran.

Bestalde, jarduera-omenaldia planifikatzea iradokitzen da. Normalean hiru egun inguru iraun dezake ez baita komeni denbora asko luzatzea, ezta presaka ixtea ere. Honela deitu daiteke "(hildakoaren izena)-ren astea". Egun horietan egin beharreko ekitaldiak prestatu behar dira, ondorioz, taldearen sormena lantzea aholkatzen da ahalik eta ideia gehien sortzeko antolaketa horretarako. Jarduera fisikoak prestatuko dira, horietan energia eta tentsio handia deskargatuko baitute. Atletismoa, futbola, saskibaloia, trebetasun-probak bizikletekin, sokatira, dantza, etab.

Azkenik, ikaslea bada hildakoa bere pupitrearekin eta bere gauzeekin zer egin pentsatu beharko da. Mural kolektibo bat egitea proposatzen da, berak egindako marrazkiekin. Familia omenaldi horretara gonbidatzea aholkatzen da. Bertan, bere gauzak eta lankideek prestatutakoa emango zaizkie.

4. IKERKETA

Inkesta hauen helburua, alde batetik, urteak igaro ahala hezkuntza sistemak edota bertan parte hartzen duten indibiduok heriotzarekin edota honek sortzen duen emozio desberdinekin zer nolako jarrera izan duten aztertzea izan da. Bestalde, indibiduo hauek, gaur egun, doluarekin lotutako gaien inguruan zer pentsatzen duten jakitea. Horretarako, metodologia bat erabiliko dugu, eta, bertan, parte-hartzaileak, tresnak, datuak biltzeko prozedura eta datuen eta emaitzen analisia deskribatuko ditugu.

4.1 Metodoa

- Parte hartzaileak:

1. Inkesta

Lehen Hezkuntzako irakasleak (oraindik lanean daudenak): 21 pertsonak hartu dute parte inkesta honetan. Horietatik 14 emakumeak izan dira eta 7 gizonezkoak. Bestalde, ondorengo bi taula hauetan, inkesta erantzun dutenen adin-tartea eta irakaskuntzan darameten urte kopurua azaltzen dira:

Adin-tarteak															
22-35				35-50				50-60 edo gehiago				ED/EE			
11	E	G	%	4	E	G	%	6	E	G	%	0	E	G	%
	7	4	52.38		3	1	19.04		5	1	28.57		0	0	0
Zenbat urte daramatzate eskola ematen															
1-15				15-30				30-45 edo gehiago				ED/EE			
11	E	G	%	6	E	G	%	2	E	G	%	2	E	G	%
	7	4	52.38		5	1	28.57		2	0	9.52		0	2	9.52

2. Inkesta

Lehen Hezkuntzako ikasle izandakoak: 93 pertsonak hartu dute parte inkesta honetan. Horietatik 32 gizonak izan dira eta 61 emakumeak. Bestalde, hauek izan dira inkesta erantzun dutenen adin-tarteak:

Adin-tarteak											
16-30				30-55 edo gehiago				ED/EE			
80	E	G	%	13	E	G	%	0	E	G	%
	52	28	86.02		9	4	13.98		0	0	0

- Tresnak

Inkestak ad-hoc eginak dira. Hauek sortzeko, batetik, marko teorikoan azaltzen den teoria eta bestetik, lanean zehar landu nahi diren edukiak hartu dira kontuan. Galdera gehienak itxia dira, test modukoak, baina badaude galdera irekiak ere. Hona hemen inkesta bakoitzaren ezaugarriak:

1. Inkesta: 10 galderaz osatutako inkesta da. Lehen Hezkuntzako irakasleek erantzuteko dago egina. Inkesta honetan, irakasleei ikasgelan heriotzarekin inolako kontakturik izan duten galdetu zaie eta baita honi aurre egiteko gai izan diren ere. Bestalde, heriotzarekin lotutako emozioak ikasgelan lantzen dituzten edo inoiz landu dituzten galdetu da. Doluaren fase desberdinak ezagutzen dituzten, heriotzak ikasgelan beharrezko presentzia duen eta heriotza lantzeko baliabiderik ezagutzen duten galdetu zaie. Azkenik, heriotzarekiko eta honen tratamenduetarako formakuntza beharrezkoa iruditzen zaien galdetu zaie. (1. Eranskina)
2. Inkesta: 10 galderaz dago osatuta inkesta hau. Lehen Hezkuntzako ikasle ohiak erantzuteko sortu da inkesta hau. Ikasle izan zirenean ikasgelan heriotzarekin lotutako emoziorik lantzen zuten eta zeren bidez lantzen zuten galdetu zaie. Momentu hartan hurbileko norbait hil zitzairen eta irakaslearekin hitz egiteko gai izan ziren. Gaia bakarka edo talde handian landu zen jakin nahi izan da eta bakoitzari nola gustatuko zitzaion lantzea galdetu da. Azkenik, dolua eta honekin erlazionatutako emozioak ikasgelan lantzea garrantzitsua den galdetu da eta baita, ikasle izan zirenetik gaur egunera, dolua eta honekin lotutako emozioen lanketaren inguruan aldaketarik egon den ere. (2. Eranskina)

- Prozedura

Google-ko formularioaren bitartez sortu dira inkestak. Formulario honen bitartez, inkesta erraztasunez zabaldu daiteke sare sozial desberdinen bidez. Kasu honetan, inkesta zabaltzeko WhatsApp eta Instagram aplikazioak erabiliz. Inkestak “bola de nieve” prozeduraren bitartez zabaldu dira. Galdeketak pertsona konkretu batzuei bidali zaizkie eta hauek, inguruko norbaiti, horrela zabaltzen joan da.


- Analisi estatistikoak

Analisi estatistikoei dagokienez, inkesten erantzunak portzentaien bidez atera dira. Portzentaia horiek Google-ko Kalkulu-Orrian jarri ditut, taula batean. Ondoren, grafikoak sortu dira emaitzak modu bisualean ikusteko.

4.2 Emaitzak

1. Inkesta


Lehenengo inkestaren emaitzak azalertzeko zeinbat grafiko sortu dira. Grafiko hauetan oinarrituko gara, esan bezala, inkestaren emaitzak ateratzeko eta emaitza horiek bisualki ikusteko.



1.Irudia.Ikasgelako heriotzarekiko kontaktua eta aurre egiteko gaitasuna.


Beraz, aurreko grafikoan oinarrituta, inkesta erantzun dutenen %66.7ak heriotzarekin nolabaiteko kontaktua izan du ikasgelan (G1). Baina soilik %47.6a ikusten da gai egoerari irakasle moduan aurre egiteko (G2).

Bestalde, %47.6ak heriotzarekin lotutako emozioak lantzen ditu ikasgelan (G4) gehienek ipuinen bidez (%42.9), baina badaude filmak (%23.4) eta beste baliabide batzuk (%35.7), jolasak eta formakuntzetan ezagututako material anitzak, esaterako, erabiltzen dituzten irakasleak ere. Ikusi 2.irudia.



2.Irudia. Emozioen lanketa ikasgelan.


Gainera, inkesta erantzun duten irakasleen %57.1ak ez ditu doluaren fase desberdinak ezagutzen. Ikusi 3. irudia.



3.Irudia. Dolu-prozesuari buruzko ezagutza teorikoak

4.irudiari dagokionez, irakasleen %33.3ak soilik ezagutzen ditu heriotzak eta honek dakartzan ondorioak lantzeko baliabide desberdinak (G5).


Azkenik, 1.irudira bueltatuz, inkesta erantzun duten irakasleak ez dira ados jartzen ea heriotzak ikasgelan beharrezko presentzia duen edo ez (G3), %47.6ak baiezkoa eta %52.4ak ezezkoa eman baitu, baina, hala ere, ia guztiak ados daude, %85.7a alegia, heriotzarekiko eta honen tratamenduarekiko formakuntza beharrezkoa dela (Q6).



4.Irudia. Aurre egiteko estrategiak


2. Inkesta

Bigarren inkestaren emaitzak azalertzeko ere hainbait grafiko sortu dira. Grafiko horietan oinarrituko gara, esan bezala, inkestaren emaitzak ateratzeko eta emaitza horiek bisualki ikusteko.




5.Irudia. Dolua eta emozioen lanketa gelan.

Aurreko grafikoan ikusten dugun bezala, lehen hezkuntzako ikasleen %82.8ak ez zituen heriotzarekin lotutako emozioak lantzen ikasgelan (Q1). Lantzen zituztenen artean, ipuinak, filmak eta beste batzuk (%26.3) nabarmentzen dira. Hala ere, esan beharra dago ezin dela zehazki jakin beste batzuk horretan zer den lantzen zena. Ikusi 4.irudia.




6. Irudia. Emozioen lanketa LH-ko gelan.

Inkesta hau erantzun dutenen %63.4ari norbait hil zitzaion Lehen hezkuntzan zeundela (Q4), baina soilik %14a izan zen gai irakaslearekin hitz egiteko (Q5).



7. Irudia. Doluaren lanketa, komunikazioa.

Gehiengoa gogoratzen ez den arren (%69.9), beheko irudian azaltzen den bezala, generalki bakarka landu zen gaia %22.6 (Q6). Hala ere, iritzi desberdinak daude bakarka edo talde osoan gaia landu nahi den edo ez galdetzerakoan. %45.2ak bakarka nahiko luke gaia lantzea eta %35,5ak taldean (Q7).



8. Irudia. Doluairen lanketa gelan, taldekatzeak.

5. Irudiko grafikora bueltatuz, gehienek, hau da, %91.4ak uste dute garrantzitsua dela dolua eta honekin erlazioatutako emozioak lantzea gelan (Q2), nahiz eta esan bezala, askok landu ez duten.

%57ak uste du bere Lehen hezkuntzako etapetik gaur egunera doluairen eta honekin zerikusia duten emozioen lanketaren inguruan gauzak aldatu direla (Q3). Normaltasun gehiagorekin hartzen dela eta beldur gutxiagorekin, orain edukietaz gain ikasleen sentimenduak kontuan hartzen direla, doluairen inguruko material gehiago dagoela eta metodologiak aldatu direla diote.

5. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

1. Metodologia

Proposamen didaktiko hau ikasketa aktiboan oinarrituko da. Irakaslea ikasleen gidari eta laguntzailea izango da ikasketa prozesu guztian zehar, eta bera arduratuko da ikasleek jardueretan uneoro parte-hartu dezaten. Kasu honetan, familiek ere parte hartuko dute, beraz, edozein zalantza edo galdera izatekotan irakaslea prest egon behar da hauek erantzuteko.

Ikasle bakoitza bere esperientziaz abiatuko da, beraz, ikaskuntza pertsonalizatua lehenetsiko da. Irakasleak ikasleek ebatzi ditzaketen erronkak planteatu eta horiek ebazteko prozesuak jarriko ditu abian, hauen pentsamendu eta hausnarketa gaitasunak martxan jarri. Ikasleen interesak hartuko dira kontuan esku-hartze honetan, ondorioz, aniztasun

egoerak suerta daitezke. Hau ondo kudeatzeko, ikasgelan lankidetzan, empatia eta konfiantzazko giroa sortzea ezinbestekoa izango da.

Edukiei dagokienez, alde batetik, helburu orokorrak lortzeko oinarrizko gaitasunak garatzeko lagungarriak diren edukiak hautatu dira. Bestalde, ikasleen komunikazioa, talde izaera eta emozioak lantzeko edukiak hartu dira kontuan. Ebaluazioa gauzatzeko, oinarrizko gaitasunen lorpen maila behatuko da. Ebaluazio atalean zehazten dira erabiliko diren irizpide eta tresnak.

Espazioa modu dinamikoan antolatuko da, hau da, esku-hartze pedagogikoa gehienbat ikasgelan egingo da, baina jarduera batzuk patioan edota ikastetxeko beste edozein gunetan ere egiteko moldatu daitezke. Beraz, espazioa malgua eta aldatzeko erraza izango da. Ikasleen ekoizpenak agerian jartzeko txoko bat sortuko da. Txoko honen bitartez, ikasle taldearen partaidetza eta kohesioa sustatu nahi da. Prozesua behar bezala bideratzeko, sekuentzia didaktiko bakoitzaren garapenari behar duen denbora eskeiniko zaio. Erabiliko diren baliabideei dagokienez, arbel digitala, eta irakasleak emandako fitxak edota materiala erabiliko da soilik. Saio bakoitzean dago sakonduta erabiliko den materiala.

Ikasleei hurbileko testuinguru batean kokatuko zaie, heriotza eguneroko bizitzari lotutako gaia den aldetik. Jarduera desberdinak eramango dira aurrera: antzerkia, gutunak, solasaldiak, etab. Konpetentziak jarduera hauen bidez landuko dira. Talde zein banakako lana gauzatu beharko dute ikasleek, jardueraren arabera. Hala ere, talde kohesioa, empatia eta komunikazioa landuko dira esku-hartze honetan zehar.

Bestalde, aurretik azaldutako marko teorikoa kontuan hartu da esku-hartze pedagogikoa gauzatzeko. Dolu prozesua gertatzen denean, haurren jarreraren bidez, identifikatu ahal izango dugu, W. Worden-en atazen bidez edo Elisabeth Kübler Ross-en dολουaren faseen bidez ikaslea dολουaren ze puntutan aurkitzen den. Esan bezala, esku-hartze pedagogikoa ikasleen interesetatik abiatutakoa izango da, beraz, aukera edukiko dute galderak egiteko, etab. Hori dela eta, baliagarria izango da Cabodevilla-k azaldutako dolo-mota ezberdinak zeintzuk diren jakitea.

Andonegi (2016)-k azaltzen dituen errekurso batzuk sartu dira unitate programa honetan, dramatizazioa eta musika esaterako. Hauen bidez ikasleen interesa piztea izan da asmoa, modu ludiko baten bidez bakoitzaren emozioak ezagutzeko eta heriotzaren gaiari heltzeko.

Autore berarekin jarraituz, hurrek adin tarte bakoitzean nola ulertzen duten azaltzen du lanaren alderdi teorikoan, honek ikasleak hobeto ulertzen lagun gaitzake.

Azkenik, Cortina-k(2016), marko teorikoan azaldu bezala, heriotza lantzeko oinarrizko printzipio batzuk proposatzen dizkigu esku-hartze pedagogikoa osatzeko erabili direnak. Oinarrizko printzipio hauekin triptiko bat sortu da (3. eranskina), eskolan dolua lantzeko aholkuak ematen dituen eta esku-hartze pedagogikoarekin batera doana.

2. Testuingurua

Esku-hartze pedagogiko hau, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan (10-11 urte) emateko pentsatuta dago. Hala ere, garrantzitsua da haurren adinak gai hori lantzeko gida ez gaitzan, haren ulermena, neurri handi batean, haren heldutasunaren, momentu ebolutiboaren, kontzeptualizatzeko gaitasunaren, bizi-esperientzien, garapen kognitiboaren eta mundu emozionalaren mende egongo baita.

Baita ere, garrantzitsua da, ikasleek sentitzea ematen diren adierazpen emozionalak zintzoak direla, alegia, komunikazioa zintzoa dela. Eta batez ere, bera eta bere iritzia kontuan hartzen direla sentitu behar dute.

Gainera, ikusi dugun bezala, familia gehienentzat gai zaila denez, adin horretako ikasleek heriotzaren kontzeptuari buruzko informazio anitza eta askotarikoa jasoko dute. Beraz, ezinbestekoa izango da taldearen azterketa pertsonalizatua eta indibidualizatua egitea, haurrak heriotzari buruz duen esanahia zein den jakiteko. Malgutasunez jokatu da, egoera partikular bakoitzera egokituz eta begirada eta entzute sentikorra erabiliko dira, egoeraren ezagutza argia eta zehatza egin ahal izateko.

Ikaslea errespetatuko da, hartutako erabakietan bideratu eta lagunduko zaio, epaitu gabe. Laguntza hori dosifikatu beharko da, batzuentzat ez direlako lehenengo hilabeteak mingarrienak, gerokoak baizik eta ondorengo hilabete horietan ere laguntzeko prest agertu behar gara. Eskuzabaltasunez jokatu da, hau da, sufritzen dagoen pertsonaren ondoan egon, lagundu eta bakarrik ez dagoela sentiarazten saiatuko gara. Pertsona ulertua, errespetatua eta lagundua sentitzen bada, gaitasun handiagoa izango du egoera mingarria integratzeko.

Jarduerak modu naturalean egingo dira ikasturte osoan zehar, dagokion ikasturteko ohiko ikasgelako curriculum-arloen bidez, eta beste espazio batzuk erabili ahal izango dira, aukeren eta beharren arabera. Lan-proiektu hau abian jartzeko ezinbestekoa izango da hezkuntza-komunitate osoak gaiari buruzko konpromisoa eta dokumentazioa izatea.

Horretarako, garrantzitsua da irakasleen arteko koordinazioa sustatzea, maila bakoitzeko ordezkari bat, zuzendaritza-taldeko kide bat eta hezkuntza-orientazioaz arduratzen den kide batez osatutako batzorde bat jarriko da abian. Hauek arduratuko dira ikastetxean heriotza gertatuz gero, jarraitu beharreko pausuak zehazten. Edozein erabaki hartu aurretik, familiari abisatuko zaio.

3. Proposamen didaktikoaren helburuak

Helburuen aldetik, 236/2015 dekretuak, abenduaren 22koak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak zehazten dituen ondoko helburu hauek landuko dira:

Helburu orokorrak

- Heriotzarekiko beldurra eta balizko dolu patologikoa prebenitzea.
- Galera esanguratsu baten ondoren, ikasleei emozioak ordenatzen eta ulertzen laguntzea.

Helburu espezifikoak

Prebentiboak

- Ikasleek heriotzari buruz dituzten zalantza, pentsakera edota jakinminak azalerraztea.
- Pertsonen heriotza eragin dezaketen zergati desberdinak ezagutzera.
- Heriotzaren inguruko ideia ezberdinak errespetuz eman eta jasotzea.
- Sentimenduak inolako mugarik gabe adierazteko eta identifikatzeko gai izatea.
- Dolua ikuspegi desberdinetatik hausnartzea.
- Heriotza bizitzaren zikloaren fase gisa ulertzen.
- Heriotzaren gaiari buruz naturaltasunez hitz egiteko gai izatea.
- Heriotzari lotutako ezaugarri edo kontzeptu nagusiak ulertzea (unibertsaltasuna, atzerazintasuna, kausalitatea eta funtzionaltasunik eza).
- Bata bestearen egoeran jartzera eta ulertzea (empatia).

- Talde izaera lortzea.
- Emozio ezberdinak ezagutzea eta bereiztea.
- Irudien bidez galera-egoerak barneratzea.
- Heriotza naturalizat eta bizitzaren zatizat ulertzea.
- Irakurtzeko zaletasuna sustatzea.
- Irakurketari buruz hausnartzea eta hitz egitea.
- Bere sentimenduak azalertzeko gai izatea.
- Hiztegi emozionala eskuratzea.
- Emozio propioak eta besteen emozioak identifikatzea.
- Emozioen garrantziaz jabetzea.
- Bakoitzaren jarrera besteengan eragina duela ulertzea.
- Emozio guztiak onargarriak direla ulertzea.
- Haiek dituzten erreakzio emozionalaz jabetzea.

Paliatiboak

- Heriotzaren osteko sentimenduak lantzea.
- Dolu prozesuan garapen bat egon dela ikustea.
- Galera eragiten duten sentimenduetan sakontzea.
- Maite dugun pertsona baten heriotzak eragin dituen sentimenduen adierazpena eta elkarrizketa sustatzea.
- Ideiak eta baliabideak eskaintzea heriotza onartzeko edo dolua gainditzeko.
- Doluaren prozesuaz jabetzea.
- Norberaren sentimenduetan ematen diren aldaketez jabetzea.

Helburu trasbertsalak

- Ikasgelan giro egokia sortzea, bakoitzak dituen bizipen eta sentimenduak askatasunez adierazteko.
- Talde lanean lan egiten ikastea, ikaskideen entzunez eta erabakiak guztien artean hartuz.
- Norberaren sentimenduetan ematen diren aldaketez jabetzea.
- Talde kohesioa lortzea.
- Familia eta eskolaren arteko kohesioa ikustea.
- Banakako eta talde pentsamendua eta hausnarketa sustatzea.
- Enpatia sustatzea eta ikasleen artean konfiantza finkatzea.

4. Konpetentziak

Proposamen honetan, 236/2015 dekretuak, abenduaren 22koak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak zehazten dituen ondoko konpetentzia hauek landuko dira:

Oinarrizko konpetentziak:

- Zeharkakoak:
 - Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
 - Elkarbizitzarako konpetentzia.
 - Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.
 - Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

- Diziplina-konpetentziak:
 - Hizkuntza eta Literatura komunikaziorako konpetentzia.
 - Arterako konpetentzia.
 - Konpetentzia motorra.
 - Gizarterako eta herritasunerako konpetentzia.

5. Edukiak

Edukien aldetik, 236/2015 dekretuak, abenduaren 22koak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak zehazten dituen lehenengo zikloko hainbat multzo landuko dira. Ondoko hauek izango dira presentzia gehien izango dutenak:

- Hizkuntza eta Literatura komunikaziorako konpetentzia.
 1. eduki multzoa. Arlo guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak.
 - Harremanak eta komunikazioa lantzea pertsonekin (enpatia eta asertibitatea).
 - Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
 - Norberaren emozioak erregulatzea.
 - Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
 2. eduki multzoa. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea.

- Harreman interpersoneletan nahiz hezkuntza-esparruan sortu ohi diren komunikazio egoeretan parte hartzea eta kooperatzea.
- Ahozko interakzio-egoeretan nagusi diren arauak aintzat hartzea: hitz egiteko txanda, gaiari loturik hitz egiteko mekanismoak, besteen iritziekiko errespetua, kortesia arauak...
- 3. eduki multzoa. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea.
 - Idatzizko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea.
- Arterako konpetentzia.
 1. eduki multzoa. Arlo guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak.
 3. eduki multzoa. Musika-espresioa, -interpretazioa eta -sormena.
 - Inprobisazioa baliatzea ahotsarekin, musika-tresnekin eta gorputzarekin, musikaestimuluei eta bestelako estimuluei erantzuteko.
 4. eduki multzoa. Erreferente plastiko eta bisualak hautematea, ulertzea eta interpretatzea.
 - Artelanak pertsonen komunikazio-bitartekoak eta kultura-nortasuneko balioak transmititzeko tresnak direla ulertzea eta balioestea.
 5. eduki multzoa. Arte-adierazpen plastiko eta bisualak ekoiztea, espresatzea eta sortzea.
 - Gainerako pertsonen iritziekiko eta lanekiko errespetua eta interesa adieraztea, norberaren ezagutze-prozesuaren parte diren aldetik.
 - Jarrera originala eta berezkoa izatea, eta, artelanak sortzean, modu pertsonal eta autonomoan adieraztea ideiak, sentimenduak eta bizipenak.
- Konpetentzia motorra.
 1. multzoa. Arlo guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak.
 3. multzoa. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa.
 - Gorputzaren, keinuen eta mugimenduaren bidez adieraztea eta komunikatzea emozioak eta sentimenduak.
 - Gorputzaren bidezko komunikazioa dakarten egoeretan parte hartzea eta egoera horiek errespetatzea.

6. Saioak

Ondoren azalduko diren saioak bi zatitan banatuta daude. Lehenengo zatian jarduera prebentiboz osatutako saioak ditugu, hau da, heriotza gertatu baino lehen egitekoak. Sei saio dira eta esan bezala, galera bat gertatu aurretik eramango dira aurrera ikastetxean. Bigarren zatian, aldiz, jarduera paliatiboz osatutako saioak ditugu, heriotza gertatu eta gero egitekoak direnak, alegia. Hauek, hiru saiotan banatzen dira eta heriotza gertatu ondoren martxan jartzeko saioak direnez, ezin daiteke zehazki jakin aurrera eramango diren edo ez.

- Saio prebentiboak

1.SAIOA		
Saioaren izena: Emozioak ezagutzen	Denbora: 2h	Maila: 4. maila
Baliabideak: Koadernoak, arkatza edo boligrafoa, Koloretako Munstroaren liburua eta esaldiak paper batean idatzita.	Espazioa: Saio hau gelan eramango da aurrera.	
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hiztegi emozionala eskuratzea. - Emozio ezberdinak ezagutzea eta bereiztea. - Emozio propioak eta besteen emozioak identifikatzea. - Emozioen garrantziaz jabetzea. - Bakoitzaren jarrera besteengan eragina duela ulertzea. - Emozio guztiak onargarriak direla ulertzea. - Haiek dituzten erreakzio emozionalak jabetzea. 		
<p>Edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea. - Inprobisazioa baliatzea ahotsarekin, musika-tresnekin eta gorputzarekin, musika estimuluei eta bestelako estimuluei erantzuteko. - Gorputzaren, keinuen eta mugimenduaren bidez adieraztea eta komunikatzea emozioak eta sentimenduak. - Gorputzaren bidezko komunikazioa dakarten egoeretan parte hartzea eta egoera horiek errespetatzea. 		

Deskribapena:

1. Jarduera: Emozioak. Jarduera hau saio bakoitzaren hasieran egingo da eta 15 minutu inguruko iraupena izango du. Ikasleak, irakaslearekin batera, zirkulu batean jarriko dira eta nahi duenak bere gertaeren edota sentimenduen inguruan hitz egiteko aukera izango du gainontzeko ikaskideen aurrean. Ikaskideek hitz egiten dagoen ikaslea errespetuz entzun beharko dute eta haien txanda izan arte itxaron. Hitz egiten dagoen ikasleak arazo bat plazaratuz gero, guztien artean aholkuak eman diezaioke. Bukaeran, bakoitzak bere kuadernotxoan idatzi beharko du bere sentimenduak eta emozioak zeintzuk izan diren, horrela, emozioen eguneroko txiki bat sortuko dute.

2. Jarduera: Irakasleak Anna Llenasen “Koloreetako monstrea” ipuina ozenki irakurriko du eta guztion artean emozioak banaka komentatuko dira.

3. Jarduera: Klasea bi eremutan zatituko da. Bata “ados” eremua izango da, eta bestea “desados” eremua. Irakasleak esaldi batzuk ozenki irakurriko ditu. Esaldi bakoitza irakurri eta gero ikasleak eremu batean kokatu beharko dira. Ondoren, irakasleak ikasleei eremu hori aukeratzearen arrazoiak galdetuko die (eremu ezberdinetan kokatutako ikasleak egotekotan, haien arteko eztabaida sustauko da).

Esaldiak:

- *Triste nagoenean gustatzen zaidan musika jartzeak ez du ezertarako balio.*
- *Lasaitzea erreza da.*
- *Haserre nagoenean oihukatzea eta iraintzea normala da, eta ez dago gaizki.*
- *Haserre edo triste egotean beste norbaitekin hitz egitea hobeto sentitzeko lagungarria da.*
- *Emozio guztiak onargarriak dira.*
- *Triste nagoenean, hoberena pasatzen zaidan arte ezer ez esatea edo egitea da.*
- *Emozioak soilik hitzen bidez adierazi ahal dira.*
- *Haserretzea ondo dago.*
- *Sentitzen dudanaren marrazki bat egitea lasaitzeko baliagarria da.*
- *Emozioak kutsakorak dira, hau da, pozik egoteak besteak pozik egotea eragin dezake.*
- *Haserre egotean gustoko libururen bat irakurtzea lasaitzeko lagungarria da.*
- *Sentitzen dudana idaztea hobe sentitzeko baliagarria da.*
- *Arnasa hartzea eta bakarrik egotea lagungarria da lasaitzeko.*
- *Beldurra izatea ona da.*
- *Kirola egitea (korrika egitea etab.) hobe sentitzeko lagungarria da.*

Lorpen adierazleak:

- Hiztegi emozionala eskuratzeko gai izan da.
- Emozio ezberdinak ezagutu eta bereizten ditu.
- Emozio propioak eta besteen emozioak identifikatzeko gai da.
- Emozioen garrantziaz jabetzen da.
- Bakoitzaren jarrera besteengan eragina duela ulertzen du.
- Emozio guztiak onargarriak direla ulertzen du.
- Bere erreakzio emozionalaz jabetzen da.

Ebaluazioa: Emozioen egunerokoa eta 5.eranskinean azaltzen den ebaluazio-taula erabiliko dira.

2.SAIOA

Saioaren izena: Emozioak kanporatzen

Denbora: 2h

Maila: 4. maila

Baliabideak: Koadernoak eta arkatza edo boligrafoa, sentimendu ezberdinen kartelak, musika ekipoa, mozorroak, zapiak...

Espazioa: Jarduera hau gauzatzeko eskolako gimnasioa espazio egokia izan daiteke.

Helburuak:

- Bere sentimenduak azaleratzeko gai izatea.
- Sentimenduak inolako mugarik gabe adierazteko eta identifikatzeko gai izatea.

Edukiak:

- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Inprobisazioa baliatzea ahotsarekin, musika-tresnekin eta gorputzarekin, musika estimuluei eta bestelako estimuluei erantzuteko.
- Gorputzaren, keinuen eta mugimenduaren bidez adieraztea eta komunikatzea emozioak eta sentimenduak.
- Gorputzaren bidezko komunikazioa dakarten egoeretan parte hartzea eta egoera horiek errespetatzea.

Deskribapena:

1.Jarduera: Emozioak. Jarduera hau saio bakoitzaren hasieran egingo da eta 15 minutu inguruko iraupena izango du. Ikasleak, irakaslearekin batera, zirkulu batean jarriko dira eta nahi duenak bere gertaeren edota sentimenduen inguruan hitz egiteko aukera izango

du gainontzeko ikaskideen aurrean. Ikaskideek hitz egiten dagoen ikaslea errespetuz entzun beharko dute eta haien txanda izan arte itxaron. Hitz egiten dagoen ikasleak arazo bat plazaratuz gero, guztien artean aholkuak eman diezaiokete. Bukaeran, bakoitzak bere kuadernotxoan idatzi beharko du bere sentimenduak eta emozioak zeintzuk izan diren, horrela, emozioen eguneroko txiki bat sortuko dute.

2.Jarduera: Nola sentitzen naiz hau entzutean? Irakasleak horman sentimendu desberdinak adierazten dituzten papel zatiak itsatsiko ditu, tristura, alaitasuna, haserrea, beldurra, etab. Ondoren, musika jarriko du eta ikasleek musika horrek transmititzen dien sentimendura joan beharko dute. Ikasleak sentimendu ezberdinetan daudenean irakasleak galderak egingo dizkie, adibidez, zergatik aukeratu duten sentimendu hori abesti horretan, etab.

3.Jarduera: Entzuten dut egiten dut. Ikasleak gela guztian zehar sakabanatuko dira eta oinez egin beharko dute. Irakasleak bitartean musika jarriko du. Ikasleek musika horrek transmititzen dienaren arabera ibili beharko dira. Musika lasaia bada, poliki; musika agudua bada, oin puntetan, etab.

4.Jarduera: Dramatizazioa/Antzerkia. Ikasleak taldetan banatuko dira, 5 edo 6 pertsonako taldeak. Talde bakoitzari papertxo bat emango zaio. Papertxo horretan egoera desberdinak egongo dira eta hauetan, pertsonaia bakoitzak emozio bat irudikatu beharko du. Denbora bat utziko zaio talde bakoitzari antzerki motz bat prestatzeko eta gero, ikaskideen aurrean aurkeztu beharko dute. Antzerkia bukatu ostean, ikaskideek antzerkiko pertsonaia bakoitzaren emozioa zein den asmatu beharko du.

Lorpen adierazleak:

- Bere sentimenduak azaleratzeko gai da.
- Talde lanean aritzeko gai da.
- Ikaskideei entzuteko gai da eta guztien artean erabakitzeko gai dira.
- Sentimenduak inolako mugarik gabe adierazteko gai da.
- Parte hartze aktiboa dauka gelan.
- Sentimenduak identifikatzeko gai da.

Ebaluazioa: Emozioen egunerokoa eta 5.eranskinean azaltzen den ebaluazio-taula erabiliko dira.

3.SAIOA		
Saioaren izena: Aurre ezagutzetatik abiatuz	Denbora: 2h	Maila: 4. maila
Baliabideak: Koadernoak, arkatza edo boligrafoa, etxetik ekarritako zuhaitz genealogikoak, arbela eta klariona.	Espazioa: Saio hau gelan gauzatuko da.	
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek heriotzari buruz dituzten zalantza, pentsakera edota jakinminak azaleratzea. - Ikasgelan giro egokia sortzea, bakoitzak dituen bizipen eta sentimenduak askatasunez adierazteko. - Pertsonen heriotza eragin dezaketen zegati desberdinak ezagutzea. - Heriotzaren inguruko ideia ezberdinak errespetuz eman eta jasotzea. - Banakako eta talde pentsamendua eta hausnarketa sustatzea. - Heriotzari lotutako ezaugarri edo kontzeptu nagusiak ulertzea (unibertsaltasuna, atzeraezintasuna, kausalitatea eta funtzionaltasunik eza). 		
<p>Edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Harremanak eta komunikazioa lantzea pertsonekin (empatia eta asertibitatea). - Norberaren komunikazioa erregularzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala). - Harreman interpersonean nahiz hezkuntza-esparruan sortu ohi diren komunikazio egoeretan parte hartzea eta kooperatzea. - Ahozko interakzio-egoeretan nagusi diren arauak aintzat hartzea: hitz egiteko txanda, gaiari loturik hitz egiteko mekanismoak, besteen iritziekiko errespetua, kortesia arauak... 		
<p>Deskribapena:</p> <p>1.Jarduera: Emozioak. Jarduera hau saio bakoitzaren hasieran egingo da eta 15 minutu inguruko iraupena izango du. Ikasleak, irakaslearekin batera, zirkulu batean jarriko dira eta nahi duenak bere gertaeren edota sentimenduen inguruan hitz egiteko aukera izango du gainontzeko ikaskideen aurrean. Ikaskideek hitz egiten dagoen ikaslea errespetuz entzun beharko dute eta haien txanda izan arte itxaron. Hitz egiten dagoen ikasleak arazo bat plazaratuz gero, guztien artean aholkuak eman diezaioke. Bukaeran, bakoitzak bere kuadernotxoan idatzi beharko du bere sentimenduak eta emozioak zeintzuk izan diren, horrela, emozioen eguneroko txiki bat sortuko dute.</p>		

2.Jarduera: Zuhaitz genealogikoa. Ikasle bakoitzak bere familiko zuhaitz genealogikoa ekarri beharko du gelara. Bere arbasoen loturak eginez; ezkontzak, seme-alabak, heriotzak (eta honen arrazoia), etab. azalduko dituzte zuhaitzean. Ikasle bakoitzak aukera izango du bere zuhaitza azaltzeko eta batez ere, bere arbasoen heriotzaren zergatia azaltzeko. Horrela, heriotza bizitzaren parte dela ulertu ahal izango dute eta hiltzeko modu ezberdinak daudela jakingo dute, heriotzaren gaiari hasiera emanaz.

3.Jarduera: Ideia zaparrada. Heriotzaren gaiari hasiera eman ostean, ikasleek gai honen inguruan dituzten zalantzak, ideiak, pentsakerak eta usteak jasotzeko unea heldu da. Hauetako galdera batzuei erantzuna eman ahal zaie, beste batzuei, aldiz, ikasleek horren inguruan pentsatzeko eta hurrengo saioetan lantzeko aukera aproposa izan daitezke.

Lorpen adierazleak:

- Heriotzari buruzko zalantza, pentsakera edota jakinminak azaleratzeko gai da.
- Jardueran parte hartze aktiboa du.
- Ikasgelan giro egokia sortzen du, gainontzeko ikaskideak errespetatuz.
- Bere bizipen eta sentimenduak askatasunez adierazteko gai da.
- Pertsonen heriotza eragin dezaketen zergati desberdinak ezagutzekogai da.
- Banakako hausnarketa sustatzeko gai da.
- Talde pentsamendua eta hausnarketa sustatzeko gai da.
- Heriotzari lotutako kontzeptu nagusiak ulertzeko gai da.

Ebaluazioa: Emozioen egunerokoa, bakoitzak etxetik ekarri duen zuhaitz genealogikoa eta 5.eranskinean azaltzen den ebaluazio-taula erabiliko dira.

4.SAIOA

Saioaren izena: Ipuin kontaketa

Denbora:1h

Maila:4.maila

Baliabideak: Koaderno,arkatza edo boligrafoa, “La balada del rey la muerte” ipuina.

Espazioa: Saio hau gelan egingo da printzipioz, baina eguraldi ona eginez gero, patioan ere egin daiteke.

Helburuak:

- Heriotza naturalzat eta bizitzaren zatitzat ulertzea.
- Irakurketari buruz hausnartzea eta hitz egitea.
- Irakurtzeko zaletasuna sustatzea.

Edukiak:

- Norberaren komunikazioa erregulatzea hitzekoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Harreman interperersonaletan nahiz hezkuntza-esparruan sortu ohi diren komunikazio-egoeretan parte hartzea eta kooperatzea.
- Ahozko interakzio-eretan nagusi diren arauak aintzat hartzea: hitz egiteko txanda, gaiari loturik hitz egiteko mekanismoak, besteen iritziekiko errespetua...

Deskribapena:

1.Jarduera: Emozioak. Esan bezala, jarduera hau saio bakoitzaren hasieran egingo da eta 15 minutu inguruko iraupena izango du. Ikasleak, irakaslearekin batera, zirkulu batean jarriko dira eta nahi duenak bere gertaeren edota sentimenduen inguruan hitz egiteko aukera izango du gainontzeko ikaskideen aurrean. Ikaskideek hitz egiten dagoen ikaslea errespetuz entzun beharko dute eta haien txanda izan arte itxaron. Hitz egiten dagoen ikasleak arazo bat plazaratuz gero, guztien artean aholkuak eman diezaiekete. Bukaeran, bakoitzak bere kuadernotxoan idatzi beharko du bere sentimenduak eta emozioak zeintzuk izan diren, horrela, emozioen eguneroko txiki bat sortuko dute.

2.Jarduera: Koos Meinderts eta Harrie Jekkers-en liburua irakurriko da, “La balada del rey y la muerte”. Liburu honetan, heriotzarik gabe, bizitza ez dela bizitza ikasten da. Liburua irakurri ondoren, hitz egingo da eta horri buruz hausnartuko da.

Lorpen adierazleak:

- Heriotza naturala dela eta bizitzaren zati bat dela ulertzen du.
- Irakurketari buruz hausnartzeko eta hitz egiteko gai da.

Ebaluazioa: Emozioen egunerokoa eta 5.eranskinean azaltzen den ebaluazio-taula erabiliko dira.

5.SAIOA

Saioaren izena: Film-a

Denbora: 3h

Maila: 4. maila

Baliabideak: Koadernoak, ordenagailua, proiektorea, bozgorailuak, bete beharreko fitxa, boligrafoa.

Espazioa: Saio hau gelan eramango da aurrera.

Helburuak:

- Emozio ezberdinak ezagutzea eta bereiztea.
- Bata bestearen egoeran jartzea eta ulertzea (enpatia).
- Dolua ikuspegi ezberdinetatik hausnartzea.
- Irudien bidez galera-egoerak barneratzea.
- Heriotza bitzitzaren zikloaren fase gisa ulertzea.
- Heriotzaren gaiari buruz naturaltasunez hitz egiteko gai izatea.
- Galera eragiten duten sentimenduetan sakontzea.
- Heriotzarekiko beldurra eta balizko dolu patologikoa prebenitzea.

Edukiak:

- Harremanak eta komunikazioa lantzea pertsonekin (enpatia eta asertibitatea).
- Norberaren emozioak erregulatzea.

Deskribapena:

1.Jarduera: Emozioak. Esan bezala, jarduera hau saio bakoitzaren hasieran egingo da eta 15 minutu inguruko iraupena izango du. Ikasleak, irakaslearekin batera, zirkulu batean jarriko dira eta nahi duenak bere gertaeren edota sentimenduen inguruan hitz egiteko aukera izango du gainontzeko ikaskideen aurrean. Ikaskideek hitz egiten dagoen ikaslea errespetuz entzun beharko dute eta haien txanda izan arte itxaron. Hitz egiten dagoen ikasleak arazo bat plazaratuz gero, guztien artean aholkuak eman diezaiekete. Bukaeran, bakoitzak bere kuadernotxoan idatzi beharko du bere sentimenduak eta emozioak zeintzuk izan diren, horrela, emozioen eguneroko txiki bat sortuko dute.

2.Jarduera. Film-a. Ikasleek emozioak, heriotza eta dolua lantzen duen film bat ikusiko dute. Kasu honetan, "Coco" pelikula ikusiko da. Pelikula honek, kolorez margotzen du normalean iluntasunera baztertutako heriotza. Kultura askotan (gurean barne), norbait hiltzen denean, hilerrri grisetan, jantzi beltzetan eta isiltasunean murgiltzen gara. Pertsona horren bizitza gai tabu bihurtzen da, ez da horretaz hitz egiten eta mina eta deserosotasuna baino ez du sortzen. Cocoren bitartez, bizitza eta heriotza berriro biltzera gonbidatzen gaituzte, eta azken hori maitasunez eta esker onez ospatzera, maite dugun pertsonarekin partekatutako denboragatik. Filmak hildakoen eguneko tradizio mexikarra islatzen du, non aldareak apaintzen diren eta beste mundura abiatu ziren izaki maitatuei eskaintzak eskaintzen zaizkien. Galeraren ikuspegi koloretsua eta bizia ematen digu, eta dolua partekatutako eta adierazitako prozesu gisa aurkezten digu, leku ilun, isil eta bakarti gisa aurkeztu beharrean.

3.Jarduera. Film-aren inguruan hitz egingo da gelan. Pertsonaiak, bakoitzaren pentsamendua, etab. landuko dira.

4.Jarduera. Film-a ikusi eta solasaldia eduki ostean, ikasleek fitxa bat bete beharko dute ulertu dutena ikusteko eta pertsonaiekin enpatizatzen duten edo ez ziurtatzeko. (4. eranskina)

Lorpen adierazleak:

- Film-eko pertsonaien lekuan jartzeko gai da, hau da, pertsonaiekin enpatizatzekeo gai da.
- Pertsonaien sentimenduak indentifikatzeko gai da.
- Film-aren inguruan dituen emozioak eta inpresioak adierazi ditu.
- Heriotza bizitzaren zikloaren fase gisa ulertu du.
- Heriotzaren gaiari buruz naturaltasunez hitz egiteko gai da.
- Galera eragiten duten sentimenduetan sakontzeko gai da
- Heriotzarekiko beldurra eta balizko dolu patologikoa prebenitzeko gai da.

Ebaluazioa: Emozioen egunerokoa, filmari buruz betetako fitxa (4.eranskina) eta 5.eranskinean azaltzen den ebaluazio-taula erabiliko dira.

6.SAIOA

Saioaren izena: Oroitzapenen kutxa

Denbora: 1h

Maila:4.maila

Baliabideak: Koadernoak, kutzak, papera, arkatza/boligrafoa, kartoia, kartulina, margoak, errotulagailuak...

Espazioa: Saio hau gelan eramango da aurrera.

Helburuak:

- Bata bestearen egoeran jartzea eta ulertzea (enpatia).
- Talde izaera lortzea.

Edukiak:

- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Ahozko interakzio-egoeretan nagusi diren arauak aintzat hartzea: hitz egiteko txanda, gaiari loturik hitz egiteko mekanismoak, besteen iritziekiko errespetua, kortesia arauak...

- Idatziko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta tranferitzea.
- Artelanak pertsonen komunikazio-bitartekoak eta kultura-nortasuneko balioak transmititzeko tresnak direla ulertzea eta balioestea.
- Gainerako pertsonen iritziekiko eta lanekiko errespetua eta ineresa adieraztea, norberaren ezagutze-prosezuaren parte diren aldetik.
- Jarrera originala eta berezkoa izatea, eta artelanak sortzean, modu pertsonal eta autonomoan adieraztea ideiak, sentimenduak eta bizipenak.

Deskribapena:

1.Jarduera: Emozioak. Esan bezala, jarduera hau saio bakoitzaren hasieran egingo da eta 15 minutu inguruko iraupena izango du. Ikasleak, irakaslearekin batera, zirkulu batean jarriko dira eta nahi duenak bere gertaeren edota sentimenduen inguruan hitz egiteko aukera izango du gainontzeko ikaskideen aurrean. Ikaskideek hitz egiten dagoen ikaslea errespetuz entzun beharko dute eta haien txanda izan arte itxaron. Hitz egiten dagoen ikasleak arazo bat plazaratuz gero, guztien artean aholkuak eman diezaiokete. Bukaeran, bakoitzak bere kuadernotxoan idatzi beharko du bere sentimenduak eta emozioak zeintzuk izan diren, horrela, emozioen eguneroko txiki bat sortuko dute.

2.Jarduera: Ikasle bakoitzak, irakasleak emanda, beste ikaskide baten izena edukiko du papertxo batean idatzita. Bestalde, mahai gainean bakoitzak kutxa bat izango du. Ikasleek, irakasleak emandako papertxo horietan egokitu zaien pertsona horri gutun bat idatzi beharko diote. Gutun hori kasu hipotetiko batean oinarrituta egongo da: egokitu zaien pertsona hiltzear dagoela suposatutako dute eta horretan oinarrituko dira gutuna idazterakoan. Hori egin ostean, bakoitzak gutunaz gain, bestelako marrazki, artelan, etab. sartu ditzake kutxa barruan. Guztiek amaitzen dutenean bakoitzak egin duena azalduko du eta egokitu zaion ikaskideari emango dio kutxa.

Lorpen adierazleak:

- Heriotza onartzen du, eta bizitza bezala existitzen dela onartzen du.
- Bere kideen sentimenduekin empatia sentitzen du, baita bere sentimendu propioekiko ere.
- Taldekideak errespetatzen ditu.

Ebaluazioa: Emozioen egunerokoa, idatziko duten gutuna eta 5.eranskinean azaltzen den ebaluazio-taula erabiliko dira.

- **Saio paliatiboak**

1.SAIOA		
Saioaren izena: Oroitzen	Denbora:2h	Maila: 4.maila
Baliabideak: Koadernoak, papera, arkatza/boligrafoa, koloretako kartulinak, errotulagailuak, kola, guraizeak, argazkiak, objektuak...	Espazioa: Saio hau gelan egingo da.	
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Doluaren prozesuaz jabetzea. - Norberaren sentimenduetan ematen diren aldaketez jabetzea. - Maite dugun pertsona baten heriotzak eragin dituen sentimenduen adierazpena eta elkarrizketa sustatzea. 		
<p>Edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Norberaren emozioak erregulatzea. - Idatzizko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta tranferitzea. - Artelanak pertsonen komunikazio-bitartekoak eta kultura-nortasuneko balioak trasmittitzeko tresnak direla ulertzea eta balioestea. - Gainerako pertsonen iritziekiko eta lanekiko errespetua eta ineresa adieraztea, norberaren ezagutze-prozesuaren parte diren aldetik. - Jarrera originala eta berezkoa izatea, eta artelanak sortzean, modu pertsonal eta autonomoan adieraztea ideiak, sentimenduak eta bizipenak. 		
<p>Deskribapena:</p> <p>1.Jarduera: Emozioak. Jarduera hau saio bakoitzaren hasieran egingo da eta 15 minutu inguruko iraupena izango du. Ikasleak, irakaslearekin batera, zirkulu batean jarriko dira eta nahi duenak bere gertaeren edota sentimenduen inguruan hitz egiteko aukera izango du gainontzeko ikaskideen aurrean. Ikaskideek hitz egiten dagoen ikaslea errespetuz entzun beharko dute eta haien txanda izan arte itxaron. Hitz egiten dagoen ikasleak arazo bat plazaratuz gero, guztien artean aholkuak eman diezaiokete. Bukaeran, bakoitzak bere kuadernotxoan idatzi beharko du bere sentimenduak eta emozioak zeintzuk izan diren, horrela, emozioen eguneroko txiki bat sortuko dute.</p>		

2.Jarduera: Oroitzapen gutuna. Ezagutzen zenuen norbait hil da orain dela gutxi, beraz, ikaskide horri zuzendutako gutun bat idatzi beharko diote ikasleek. Gutun horretan, gauza desberdinak idatzi daitezke, elkarrekin zuten harremana, ikaslea bera nola sentitzen den galeraren ostean, elkarrekin igarotako pasarte esanguratsuren bat, etab. Gutunarekin batera, pertsona horri zuzendutako marrazkiak edota bestelako ofrendak ere gauzatu ditzakete ikasleek.

3.Jarduera:Txoko berezia. Gelan txoko bat sortuko da hildako pertsona horri eskeinia. Bertan, aurreko jardueran idatzitako kartak, egindako marrazkiak, etab. eskegi ahalko dira. Bestalde, ikasleak nahi izanez gero, objektuak gehitzen joan daitezke. Hildakoa irakaslea izango balitz, txoko hau pasiloan edo eskolako beste toki batean jar daiteke.

Lorpen adierazleak:

- Pertsonaren oroitzapenak erabiliz onartzen du galera.
- Jarrera aktiboa du galeraren aurrean.
- Maite dugun pertsona baten heriotzak eragin dituen sentimenduen adierazpena eta elkarrizketa sustatzeko gai da.

Ebaluazioa: Emozioen egunerokoa, ikasle bakoitzak egindako gutuna eta 5.eranskinen azaltzen den ebaluazio-taula erabiliko dira.

2.SAIOA

Saioaren izena: murala

Denbora:2h

Maila: 4.maila

Baliabideak: Pankarta papera, arkatza/boligrafoa, koloretako kartulinak, errotulagailuak, koadernoak, arkatza edo boligrafoa, margoak, pintura, kola, guraizeak, argazkiak, objektuak.

Espazioa: Espazio zabal bat beharko da, ikastetxeko kiroldegia, esaterako.

Helburuak:

- Heriotzaren osteko sentimenduak lantzea.
- Talde kohesioa lortzea.
- Ideiak eta baliabideak eskaintzea heriotza onartzeko edo dolua gainditzeko.

Edukiak:

- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Harreman interpertsonaletan nahiz hezkuntza-esparruan sortu ohi diren komunikazio egoeretan parte hartzea eta kooperatzea.
- Idatzizko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta tranferitzea.
- Artelanak pertsonen komunikazio-bitartekoak eta kultura-nortasuneko balioak transmititzeko tresnak direla ulertzea eta balioestea.
- Jarrera originala eta berezkoa izatea, eta artelanak sortzean, modu pertsonal eta autonomoan adieraztea ideiak, sentimenduak eta bizipenak.

Deskribapena:

1.Jarduera: Emozioak. Jarduera hau saio bakoitzaren hasieran egingo da eta 15 minutu inguruko iraupena izango du. Ikasleak, irakaslearekin batera, zirkulu batean jarriko dira eta nahi duenak bere gertaeren edota sentimenduen inguruan hitz egiteko aukera izango du gainontzeko ikaskideen aurrean. Ikaskideek hitz egiten dagoen ikaslea errespetuz entzun beharko dute eta haien txanda izan arte itxaron. Hitz egiten dagoen ikasleak arazo bat plazaratuz gero, guztien artean aholkuak eman diezaiokete. Bukaeran, bakoitzak bere kuadernotxoan idatzi beharko du bere sentimenduak eta emozioak zeintzuk izan diren, horrela, emozioen eguneroko txiki bat sortuko dute.

2.Jarduera: Murala. Ikasleek mural handi bat osatu beharko dute irakaslearen laguntzaz. Mural honetan hildako pertsonaren inguruko argazkiak, esaldiak, irudiak, marrazkiak, etab. agertuko dira.

3.Jarduera: Mezua. Ikaskide guztien artean mezu bat osatu beharko dute hildako pertsonan horrenganako sentimendu eta emozio desberdinak adieraziz.

Lorpen adierazleak:

- Talde lanean egoki aritu da, gainontzeko ikaskideak errespetatuz eta ideiak emanez.
- Heriotzaren osteko sentimenduak modu egokian adierazteko gai da.
- Eskeinitako ideiak edo baliabideak baliatu ditu heriotza onartzeko edo dolua gainditzeko.

Ebaluazioa: Emozioen egunerokoa eta 5.eranskinean azaltzen den ebaluazio-taula erabiliko dira.

3.SAIOA		
Saioaren izena: Askatu	Denbora:1h	Maila: 4.maila
Baliabideak: Koadernoak, puxikak, papera, arkatza/boligrafoa.	Espazioa: Saio hau patioan eramango da aurrera.	
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Familia eta eskolaren arteko kohesioa ikustea. - Dolu prozesuan garapen bat egon dela ikustea. 		
<p>Edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Harremanak eta komunikazioa lantzea pertsonekin (enpatia eta asertibitatea). - Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea. - Norberaren emozioak erregulatzea. - Artelanak pertsonen komunikazio-bitartekoak eta kultura-nortasuneko balioak transmititzeko tresnak direla ulertzea eta balioestea. 		
<p>Deskribapena:</p> <p>1.Jarduera: Emozioak. Esan bezala, jarduera hau saio bakoitzaren hasieran egingo da eta 15 minutu inguruko iraupena izango du. Kasu honetan, patioan bertan egingo denez saioa, patioan bertan egin dezakegu jarduera ere. Ikasleak, irakaslearekin batera, zirkulu batean jarriko dira eta nahi duenak bere gertaeren edota sentimenduen inguruan hitz egiteko aukera izango du gainontzeko ikaskideen aurrean. Ikaskideek hitz egiten dagoen ikaslea errespetuz entzun beharko dute eta haien txanda izan arte itxaron. Hitz egiten dagoen ikasleak arazo bat plazaratuz gero, guztien artean aholkuak eman diezaioke. Bukaeran, bakoitzak bere kuadernotxoan idatzi beharko du bere sentimenduak eta emozioak zeintzuk izan diren, horrela, emozioen eguneroko txiki bat sortuko dute.</p> <p>2.Jarduera: Mezua. Saio hau burutzeko, patiora edota antzeko eskolako espazio batera joango gara. Bertan, aurreko saioetan egindako materiala erabiliko dugu. Bertara, ikaskideak ez ezik, hildakoaren familia, beste ikaskide batzuk, irakasleak, etab. ere joan daitezke. Aurreko saio batean egindako murala zabalduko da, hildako pertsona horren omenez eta ikaskideek guztien artean idatzitako gutun hori irakurriko dute.</p> <p>3.Jarduera: Zerura puxikak. Pankarta zabaldu eta mezua irakurri ostean, omenalditxo horretara bertaratzen den pertsona orok, puxika bat, paper zati bat eta boligrafo bat</p>		

izango du. Paper zati horretan, hildako pertsonaren inguruko zerbait idatzi beharko dute: zure falta sumatzen dut, ez dut zure irribarrea ahaztu, etab. erabili daitezke adibide moduan.

Lorpen adierazleak:

- Bere dolu-prozesuaren garapenaz ohartzen da.
- Emozioak eta sentimenduak adierazten ditu dolu-prozesuan zehar.

Ebaluazioa: Emozioen egunerokoa eta 5.eranskinean azaltzen den ebaluazio-taula erabiliko dira.

7. Ebaluazioa

Esan bezala, hasiera batean “ideia zaparrada” deituriko jardueran, ikasle bakoitzak heriotza edota doluari buruz daukaten iritzia edota pentsamolde desberdinak adieraziko dituzte. Hortaz, ikasle bakoitzaren aurretiazko ezagutzetatik abiatutako ebaluaketa izango da hau.

Esku-hartze pedagogikoko prozesuan zehar, identifikatu diren zailtasunak kontuan hartuko dira, ikasleei baliabideak emateko zailtasun horiek gaindi ditzaten.

Azkenik, esku-hartzearen hasieran aipatutako helburuen lorpen-maila ebaluatuko da. Horretarako, nahiz eta ebaluazioa etengabekoa eta behaketan oinarritutakoa izan, irakasleak, esku-hartzearen bukaeran ebaluazio taula bete beharko du. Bi ebaluazio taula egongo dira, bata saio prebentiboetarako dagokiona eta bestea saio paliatiboetarako dagokiona (5. eranskina). Ebaluazio taulak betetzeko saioetan egindako gutun, fitxa, artelan, eta abarretaz baliatuko da irakaslea.

6. EZTABAIDA

Heriotzaren gaia kultura eta esparru akademiko askotan oraindik tabua bada ere, garrantzitsua da gizabanakoek eta hezitzaileek heriotza eta atsekabea modu osasuntsu, natural eta eraikitzailean eztabaidatzearen garrantzia onartzea eta honi tokia egitea.

Heriotzaren gaia saihestek psikologikoki ahulagoak egiten ditu pertsonak, inoren eta norberaren heriotzari aurre egiteko estrategia egokirik ez egotea erraztuz. (Santiesteban, et. al., 2019). Horregatik errealitatea den bezala azaldu behar diegu ikasleei, betiere bakoitzaren adin-tartera egokituz.

Lanari dagokionez, ezin izan da proposamen didaktiko hau praktikan gauzatu arrazoi ezberdinak direla medio eta horrek nolabaiteko etsipena eragiten du, irakasle guztiek baitakite ikasteko eta hobetzeko praktikan jarri behar dela proposatutakoa, eta hori egiteko aukerak, emaitza-aberastasun handia emango lioke lan honi. Gainera, horrela, etorkizunean esku-hartze pedagogiko hau egin nahiko balitz, hobetzeko alderdiak zeintzuk izango liratekeen jakin daitezke.

Inkestaren parte-hartze tasari buruz hitz egiten badugu, irakasleen galdetegian parte-hartzea ez da oso altua izan. Honen aurrean, erantzun gehiago jasotzeko eta ondorio baliagarriagoak atera ahal izateko, beharrezkoa izango litzateke beste ikerketa-metodo batzuetaz baliatzea. Esaterako, aukera izanez gero, Lehen Hezkuntzako ikastetxe ezberdinetako irakasleekin sakoneko elkarrizketak egitea aproposa suerta daiteke, doluaren lanketaren inguruan duten ikuspegia modu eraginkorrean ezagutu ahal izateko.

Inkesta erantzun duten irakasleen artean heriotzaren inguruko lanketa beharra ikusten duten arren, askok ez dute jaso gaiaren inguruko ezagutza edo baliabiderik. Gainera, badirudi ez direla eskoletan, oro har, heriotzarekin edo horrekin zerikusia duten emozioekin zerikusia duten gaiak jorratzen. Beraz, ondoriozta daiteke ikasgelan gai horri heldu behar zaion arren, ahalegin handiagoa egin behar dela irakasleei behar dituzten baliabideak eta ezagutzak eskaintzeko, hauek eraginkortasunez eragin dezaten.

Gainera, ikastetxeek ingurune irekiagoa eta onartuagoa sortu behar dute gai horiek eztabaidatzeko eta ikasleei hobeto ulertzen eta aurre egiten laguntzeko. Izan ere, beharrezkoa da irakasleak ondo prestatuta egotea, gero ikasleei modu egokian haien jakintzak eta balioak transmititzeko.

Bestalde, inkestari erantzun dioten Lehen Hezkuntzako ikasle ohi gehienek esaten dute garai hartan ez zela inolako edukirik lantzen heriotzari edo lotutako emozioei buruz, oro har, banaka lantzen zela gaia. Horrek iradokitzen du gaiak tabu izaten jarraitzen duela gizartean. Hala ere, orain tabu horri aurre egiteko ahaleginak daude, eta hezitzaile batzuek defendatzen dute heriotzaren gaia eskoletan sartzeari, ikasleei hobeto ulertzen eta heriotzari aurre egiten laguntzeko. Alabaina, gaiak hunkibera izaten jarraitzen du askorentzat, eta lan gehiago egin behar da heriotzari buruzko tabua gainditzeko.

Gainera, oso gutxi izan ziren gai irakaslearekin hitz egiteko eta ikasgelan heriotzaren gaia jorratzeko, garai hartan senideren baten heriotza bizi izan bazuten ere. Hau lantzea eta aldatzea oso garrantzitsua da, horretarako ikasgelan konfiantzazko espazio bat egotea ezinbestekoa da. Irakaslea ikaslearen babesa izan behar da, horrelako une baten aurrean edo beste edozein egoeraren aurrean laguntza eskeintzea izan behar honen helburua.

Beraz, Lehen Hezkuntzako ikasgelan emozio- eta bizitza-gaiei buruz arreta eta eztabaida falta dagoela esan dezakegu, eta uste dut, gai horiei modu irekiagoan eta eraginkorragoan heldu behar zaiela hezkuntzan.

Hala ere, batzuek, haien Lehen Hezkuntzako etapatik gaur egunekora, heriotzaren gaia asko aldatu dela diote. Orain, dolua, heriotza eta honekin lotutako emozioak gehiago lantzen direla diote eta baita ikaslearen sentimenduak eta nahiak gehiago hartzen direla kontuan. Halabaina, oraindik curriculumean ageri ez den gai bat da heriotzarena eta horrenbestez, ikasgela guztietan lantzen ez dena.

Hortaz, garrantzitsua da heriotzari eta horri lotutako emozioei buruzko eztabaida sustatzea hezkuntzan, haurrei hobeto ulertzen eta heriotzari aurre egiten laguntzeko. Gai horiek eskolan eta irakasleekin eztabaidatzean, haurrak ez dira hain isolatuta eta bakarrik sentituko une zail horietan, eta horrek lagundu dezake sarritan heriotzarekin batera gertatzen diren antsietatea eta estresa murrizten. Gainera, heriotzari buruz hitz egiteak haurrei aurre egiteko trebetasun garrantzitsuak irakasten ere lagun diezaieke, eta etorkizunean egoera zailtarako prestatzen lagun diezaieke.

Ikusi dugunez, hezkuntza esparruan ezinbestekoa da emozioen lanketa egitea, heriotza eta dolu prozesuari arreta berezia jarritz. Azken batean, ideiak eta sentimenduak askatasunez adieraztea da helburua, eta, horrez gain, ikasleek gai horri buruz egiten dituzten galderari erantzun diezaieketen informazio erraz eta zehatza ematea. (Santiesteban, et al., 2019).

7. **BIBLIOGRAFIA /ERREFERENTZIAK**

- Aguilar, R. S., Virto, N. B., Martín, S. D., Díaz, M. M., eta Cuadrado, S. R. (2021). Intervención escolar sobre la muerte a partir del currículo español en educación infantil y primaria. *SUMMA. Revista disciplinaria en ciencias económicas y sociales*, 3(2), 1-19.
- Andonegi, I., Ormazabal, T., Pascual, A.M., Rosas, R. eta Ugalde, A. (2016). *Orientaciones para una Actuación Educativa en Procesos de Duelo*. <https://bideginduelo.org/wp-content/uploads/2018/03/guia-duelo-y-escuela-Bidegin.pdf>
- Aranguren, L., Alonso, S., Díaz, E., García, M.D., Alvira, J.M., Arrimados, I., Centeno, L., Méndez, M., Moya, V., Poveda, J., eta Ruiz, J.M. (2019). *Guía para educadores: El duelo en el ámbito escolar*. http://www.cuidarypaliar.es/wp-content/uploads/2019/05/GUIA_DEL_DUELO_para-educadores.pdf
- Bisquerra, R. (2011). *Educación Emocional. Propuestas para educadores y familias*. Bilbo: Desclée de Brower.
- Cabodevilla, I. (2007). Las pérdidas y sus duelos. *Anales del sistema sanitario de Navarra. Gobierno de Navarra*. Departamento de Salud. 30, 163-176. 2022-09- 23an hartuta, hemendik: <http://scielo.isciii.es/pdf/asisna/v30s3/original11.pdf>
- Cantero García, M. F. (2013). La educación para la muerte. Un reto formativo para la sociedad actual. *Psicogente*, 16(30), 424-438.
- Cortina, M. (2016). Guía Y Orientaciones Para La Atención Al Duelo Desde Los Centros Educativos. https://ceice.gva.es/documents/162793785/165324895/180420_GUIA_DOL_REICO_PUB_CAS.pdf/83e31829-b021-4b67-872b-d82f14d426e3
- Dávalos, E. G. M., García, S., Gómez, A. T., Castillo, L., Suárez, S. S. eta Silva, B. M. (2008). El proceso del duelo. Un mecanismo humano para el manejo de las pérdidas

emocionales. *Revista de Especialidades Médico-Quirúrgicas*. 13(1), or. 28-31.
<https://www.redalyc.org/pdf/473/47316103007.pdf>

236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen dueña. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 9, 2016ko urtarrilaren 15a.

Elisabeth Kübler-Ross. (1969). *Sobre la muerte y los moribundos*. (4^a. Ed) Barcelona. Ediciones Gejalbo, s.a.

Landa, V., Sierra, E., García, J.A. eta Moreno, A. (2018) TALLER: UNA SITUACIÓN DE DUELO EN CLASE. CMB.
<https://www.cop.es/uploads/PDF/TALLER-UNA-SITUACION-DE-DUELO-EN-CLASE.pdf>

Oviedo Soto, S. J., Parra Falcón, F. M. eta Marquina Volcanes, M. (2009). La muerte y el duelo. *Enfermería global*. 15, or. 1-9.
<https://revistas.um.es/eglobal/article/view/50381/48301>

Santiesteban, J. R. G., Chang, J. Z., Porozo, C. H. A., Campoverde, D. A. G., Santillán, M. A. B., eta Palma, P. D. R. C. (2019). Educación emocional. Abordaje del proceso de la muerte en la escuela. *Revista Cubana de Investigaciones Biomédicas*, 37(2).
<http://www.revibiomedica.sld.cu/index.php/ibi/article/view/48/120>

Tapia Torres, I. D. M. C., eta Ulloa Castillo, V. E. (2017). *Factores biosocioculturales que influyen en la actitud de los profesionales de enfermería en la muerte del paciente crítico en la Unidad de Terapia Intermedia y en la Unidad de Cuidados Intensivos*. Instituto Nacional de Enfermedades Neoplásicas.
http://200.121.226.32:8080/bitstream/handle/20.500.12840/793/Isabel_Trabajo_Investigaci%c3%b3n_2017.pdf?sequence=3&isAllowed=

8. ERANSKINAK

1. Eranskina

- 1. Inkestaren galderak:

INKESTA 1 (Irakasleek erantzuteko))

1- Sexua / Sexo

- Emakumea / Mujer
- Gizona / Hombre
- ED/EE / NS/NC

2- Adina / Edad

- 20-35
- 35-50
- 50-60
- 60 edo gehiago/ o más
- ED/EE / NS/NC

3- Zenbat urte daramatzazu irakaskuntzan lanean? / ¿Cuántos años lleva trabajando en la enseñanza?

- 0-15
- 15-30
- 30-45
- 45 edo gehiago / o más
- ED/EE / NS/NC

4- Heriotzarekin nolabaiteko kontakturik izan duzu ikasgelan? / ¿Ha tenido algún tipo de contacto con la muerte en clase?

- Bai / Si
- Ez / No
- ED/EE / NS/NC

5- Aurreko galderaren erantzuna baiezkoa bada, egoerari irakasle moduan aurre egiteko ikusi duzu zure burua? / Si la respuesta a la pregunta anterior es afirmativa, ¿se ha visto para afrontar la situación como profesor?

- Bai / Si
- Ez / No
- ED/EE / NS/NC

6- Egun, heriotzak ikasgelan beharrezko presentzia duela uste duzu? / ¿Cree que la muerte tiene una presencia necesaria en el aula?

- Bai / Si
- Ez / No
- ED/EE / NS/NC

7- Ikasgelan heriotzarekin lotutako emozioak lantzen al dituzu ikasleekin? / ¿Trabajas con los alumnos las emociones relacionadas con la muerte en el aula?

- Bai / Si
- Ez / No
- ED/EE / NS/NC

Horrela bada, zeren bidez: / Si es así, por medio de:

- musika / música
- gorputz adierazpena / expresión corporal
- ipuinak / cuentos
- filmak / películas
- beste batzuk / otros

8- Doluaren fase desberdinak ezagutzen dituzu? / ¿Conoce las diferentes fases del duelo?

- Bai / Si
- Ez / No
- ED/EE / NS/NC

9- Ikasleekin heriotza eta honek dakartzan ondorioak lantzeko baliabiderik ezagutzen duzu?

- Bai / Si
- Ez / No
- ED/EE / NS/NC

Aipatu nahi izatekotan / En caso de querer citarlo:

10- Irakasleek heriotzarekiko eta honen tratamenduarekiko formakuntza beharrezkoa dutela uste duzu? / ¿Cree que los profesores necesitan formación respecto a la muerte y su tratamiento?

- Bai / Si
- Ez / No
- ED/EE / NS/NC

2. Eranskina

- 2. Inkestaren galderak:

INKESTA 2 (Lehen Hezkuntzako ikasle ohiek erantzuteko)

1- Sexua / Sexo

- Emakumea / Mujer
- Gizona / Hombre
- ED/EE / NS/NC

2- Adina / Edad

- 16-30
- 30-45
- 45-55
- 55 edo gehiago / o más
- ED/EE / NS/NC

3- Zenbat urte igaro dira Lehen Hezkuntza egin zenuenetik? / ¿Cuántos años han pasado desde que cursó Educación Primaria?

- 0-10
- 10-25
- 25-40
- 40 edo gehiago / o más
- ED/EE / NS/NC

4- Heriotzarekin erlazionatutako emozioak lantzen al zenituzten ikasgelan? / ¿Trabajabais en clase emociones relacionadas con la muerte?

- Bai / Si
- Ez / No
- ED/EE / NS/NC

Horrela bada, gogoratzen al zara zeren bidez? / Si es así, ¿te acuerdas a través de qué?

- musika / música
- gorputz adierazpena / expresión corporal
- ipuinak / cuentos
- filmak / películas
- beste batzuk / otros

5- Lehen Hezkuntzan zeundela, senitartekoren bat edo hurbileko norbait hil al zitzazun? /
Cuando estabas en Primaria, ¿se te murió algún familiar o alguien cercano?

- Bai / Si
- Ez / No
- ED/EE / NS/NC

6- Aurreko galderaren erantzuna baiezkoa bada, irakaslearekin hitz egiteko gai izan zinen? /
Si la respuesta a la pregunta anterior es afirmativa, ¿fue capaz de hablar con el profesor?

- Bai / Si
- Ez / No
- ED/EE / NS/NC

7- Hori horrela bada, gaia bakarka edota gela osoarekin landu zen? / Si es así, ¿se trató el
tema en solitario o con toda la clase?

- Bakarka / En solitario
- Talde osoan / En todo el grupo
- ED/EE / NS/NC

8- Erantzuna ezezkoa bada, bakarka edo talde osoan lantzea gustatuko litzaizuke? / Si la
respuesta es negativa, ¿te gustaría trabajarla en solitario o en todo el grupo?

- Bakarka / En solitario
- Talde osoan / En todo el grupo
- ED/EE / NS/NC

9- Dolua eta honekin erlazionatutako emozioak ikasgelan lantzea garrantzitsua dela iruditzen al zaizu? / ¿Crees que es importante trabajar el duelo y las emociones relacionadas con él en el aula?

- Bai / Si
- Ez / No
- ED/EE / NS/NC

10- Zure Lehen Hezkuntzako etapatik gaur egunera, doluaren eta honekin zerikusia duten emozioen lanketaren inguruan gauzak aldatu direla uste duzu? / ¿Crees que desde tu etapa de Primaria hasta la actualidad las cosas han cambiado en torno al duelo y al tratamiento de las emociones relacionadas?

- Bai / Si
- Ez / No
- ED/EE / NS/NC

Erantzuna baiezkoa bada, zertan? / En caso afirmativo, ¿en qué?

3. Eranskina


- Triptikoa: Unitate didaktikoa osatzeko irakasleentzako aholkuak

ESKOLAN DOLUA LANTZEKO AHOLKUAK

Eskolan heriotza gertatuz gero jarduteko edozein gida garatzeko, ikasleen beharrak, bizipena eta lanketa hartu behar dira kontuan, eta erreferente hori hartu behar da pertsona helduen gida eta ezagutza-iturri gisa.

Gertakizun tragikoen egoerak ahalik eta modu hezitzaile eta gizatiarrean normalizatzeko, oinarritzko printzipioak:

- 01 Koordinazioa**
Maila bakoitzeko ordezkari batek, zuzendaritza-taldeko kide batek eta hezkuntza-orientazioaz arduratuko den pertsona batek osatutako lan-batzorde bat sortzea iradokitzen da.
- 02 Begirada eta entzute sentikorra**
Egoera bere konplexutasun osoan ikusi. Inplikaturako pertsona guztiak kontuan hartu. Ziurtatu behar dugu haurrek, nerabeek eta familiek badakitela beren eskolan edo institutuan segurtasun eta berotasun emozionaleko giroa aurkituko dutela.
- 03 Orainari arreta jartzea**
Orainaldian bizitzearen ideia gure bizitzako edozein etapatarako. Benetan garrantzitsua da gure pentsamenduak behar ez diren larritasun eta kezka askoren kausa diren moduz jabetzea
- 04 Komunikazioa**
Koherentea eta zintzoa. Hitzaren botereaz eta isiltasunaren botereaz jakitea komeni da. Ikasleari bera eta bere iritzia kontuan hartzen direla sentiaraztea. Edozein egoera jasangarriagoa da haur batentzat zer gertatzen ari den baldin badaki, ez jakiteak segurtasunik gabe, babesik gabe sentiarazten du.
- 05 Malgutasuna**
Egoera partikular bakoitzera egokitzea. Ez dago modu estandar aplikagarriarik. Ikasleek aldaketak, galerak eta heriotza, inguruan dituzten pertsona helduen bizimoduak baldintzatuta biziko dituzte. Zorionez, baldintzapen hori erlatiboa da; izan ere, haur edo nerabe gisa, bere naturaltasuna, espiritu ikertzailea eta sormena gordetzen ditu.



06 Eskuzabaltasuna

Beste pertsonari bere sufrimenduan laguntzea, nahi badu eta behar duen moduan, da eskuzabaltasuna. Bere ondoan egon gaitezke, lagundu, bakarrik ez dagoela sentiarazi. Hezitzaile eta heldu garen aldetik, berri txar bat komunikatzeko eta oinazean eta sufrimenduan laguntzen ikasteko modua aurkitzeko ardura dugu.

07 Inklusibitate normalizatzailea

Haur batek desberdina izatearen sentimendua izan dezake horrelako kasuetan. Garrantzitsua da normaltasunez harremanak izatea doluari aurre egiten dion pertsonarekin.

Pertsona ulertua, lagundua eta errespetatua sentitzen bada, gaitasun handiagoa izango du egoera mingarria integratzeko.

08 Errespetua

Ikasleen erabakiak errespetatzea. Edozein erabaki hartu aurretik, galera izan duen familiari galdetu. Familiei ikastetxearekin informatzeko eta koordinatzeko espazioak eta bideak eskaintzea. Egiten diguten edozein galderari erantzutea. Afektu-lagin fisikoez arduratzea. Beti bezala, komeni da jardun aurretik behatzea. Sinesmenak alde batera utzi eta galera jasan duen familiari laguntzea.

09 Jarraipena

Ez dugu ahazten pertsona baten galera betiko dela eta, denborak bere zeregina egiten duen arren, horrek ez duela esan nahi ausentzia-sentimendua murriztu denik. Horregatik, ezinbestekoa da laguntza dosifikatzea. Gogoan dugu dolu bakoitza desberdina dela, eta ez dagoela eredu finkorik gu sostengatzeko.

Haurren adierazpen emozionala helduek espazioa ematean eta emozio horiek legitimatzean datza. Ikasle/haur hauek konfiantzazko tutorearengan edo irakaslearengan bere emozioak beldurrik gabe adierazteko leku bat aurkitu behar du.

Beldurra, alaitasuna, amorrua eta tristura (oinarrizko emozioak) landu daitezke, hauek identifikatzea eta adieraztea garrantzitsua da. Bestalde, sahiestezinak eta beharrezkoak direla onartu behar dugu.

Ikasgelan heriotzaren gaiari heltzeko aukera emango duten hezkuntza-tailerrak diseinatzeak, hurrei kontzeptu hori txikitatik ulertzen lagun diezaiekete eta jolasak, marrazkiak edo dramatizazioak ikasgelan lan egiteko tresna gisa sar daitezke.

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/1NpDQTyKWXWhSRcHfigH8rYuuKCsm-XbL>

4. Eranskina

- Coco filmaren fitxa

COCO PELIKULAREN FITXA

1- Esan zein den pertsonaia bakoitza:



1.	6.	11.	16.
2.	7.	12.	17.
3.	8.	13.	
4.	9.	14.	
5.	10.	15.	

2. Erantzun galderai:

- Nola deitzen da pelikulako protagonista?
 - Julio
 - Ramon
 - Miguel
- Nola du abizena Miguelen familiak?
 - García
 - Rivera
 - Mendoza

- Nola du izena Miguelen abeslari gustokoenak?
 - Ernesto de la Cruz
 - Antonio de la Cruz
 - Francisco de la Cruz

- Nola hil zen Ernesto de la Cruz?
 - harrapatuta (atropellado)
 - kanpai batek zapalduta
 - hil egin zuten

- Nola du izena Rivera familia bizi den herriak?
 - Santa Ana
 - Santa Clara
 - Santa Cecilia

- Ernesto de la Cruz-en zein abesti da Miguelen gustukoena?
 - Ámame
 - Recuérdame
 - Olvídame

- Nola deitzen da Migueli laguntzen dion txakurra?
 - Artie
 - Santi
 - Dante

- Noren argazkia botatzen du Dantek ofrendatik?
 - Tia Rosita
 - Mama Imelda
 - Papa Julio

- Nor da Miguel ikusi dezakeen bakarria hildakoen mundura igarotzen denean?
 - Dante
 - Mama Coco
 - Amonatxoa

- Zer behar da Migueli bendeinkazioa emateko bizidunen lurraldera itzul dadin?
 - Hildakoen lorearen petalo bat
 - musika
 - alebrije bat

- Zer egin behar du Miguelek Hectorrek Ernesto de la Cruz aurkitzen lagun dezan?
 - Hectorren familia aurkitu eta argazkia eman
 - Hectorren argazkia ofrendan jarri
 - Hectorrekin musika jo

- Zertarako aurkezten da Miguel lehiaketara?
 - Musikagilea dela demostratzeko
 - Bere familiarengandik ezkutatzeke
 - Ernesto de la Cruz-en festara joateko

- Ze abesti jotzen du Miguelek lehiaketan?
 - Recuérdame
 - Un Poco Loco
 - El Mundo Es Mi Familia

- Nork idatzi zituen Ernestok abesten zituen abesti guztiak?
 - Chicharrón
 - Mama Imelda
 - Héctor

- Nola hil zen Hector?
 - Sastakatu
 - Pozoitua
 - Itota

- Nor da Miguelen herenaitona?
 - Ernesto de la Cruz
 - Héctor
 - Chicharrón

- Ze abesti joten zion Hectorrek Cocori txikia zenean?
 - Recuérdame
 - Cuando vuelva a tu lado
 - Te quiero dijiste

- Ze baldintza jartzen diote Migueli bizidunen mundura itzultzeko?
 - Ernestori buruzko egia esatea
 - Musika gehiago ez jotzea
 - Ez diote baldintzarik jartzen

- Zer egiten du Miguelek Cocok bere aita gogorarazteko?
 - Argazkia erakutsi
 - Recuérdame abestia kantatu
 - Hectorren gitarra erakutsi

3- Uste duzu Miguelek ondo egin duela bere ametsak bete nahi izaten? Zergatik?

.....

.....

.....

.....

4- Zer gustatu zaizu gehien pelikula honetatik? Eta zer gutxien?

.....

.....

.....

.....

5. Eranskina

- Ebaluazio taulak

EBALUAZIO ORRIA (saio prebentiboak)				
Ikaslearen izena:				Oharrak
ADIERAZLEAK	0	1	2	
Heriotzari buruzko zalantza, pentsakera edota jakinminak azaleratzeko gai da.				
Jardueran parte hartze aktiboa du.				
Ikasgelan giro egokia sortzen du, gainontzeko ikaskideak errespetatuz.				
Bere bizipen eta sentimenduak askatasunez adierazteko gai da.				
Pertsonen heriotza eragin dezaketen zergati desberdinak ezagutzeko gai da.				
Banakako hausnarketa sustatzeko gai da.				
Talde pentsamendua eta hausnarketa sustatzeko gai da.				
Heriotzari lotutako kontzeptu nagusiak ulertzeko gai da.				
Bere sentimenduak azaleratzeko gai da.				
Talde lanean aritzeko gai da.				
Ikaskideei entzuteko gai da eta guztien artean erabakitzeko gai dira.				
Sentimenduak inolako mugarik gabe adierazteko gai da.				
Parte hartze aktiboa dauka gelan.				
Sentimenduak identifikatzeko gai da.				
Film-eko pertsonaien lekuan jartzeko gai da, hau da,				

pertsonaiekin enpatizatzeko gai da.				
Pertsonaien sentimenduak indentifikatzeko gai da.				
Film-aren inguruan dituen emozioak eta inpresioak adierazi ditu.				
Heriotza bizitzaren zikloaren fase gisa ulertu du.				
Heriotzaren gaiari buruz naturaltasunez hitz egiteko gai da.				
Galera eragiten duten sentimenduetan sakontzeko gai da				
Irakurketari buruz hausnartzeko eta hitz egiteko gai da.				
Heriotza onartzen du, eta bizitza bezala existitzen dela onartzen du.				
Bere kideen sentimenduekin enpatia sentitzen du, baita bere sentimendu propioekiko ere.				
Taldekideak errespetatzen ditu.				
Hiztegi emozionala eskuratzeko gai izan da.				
Heriotza naturala dela eta bizitzaren zati bat dela ulertzen du.				
Bere erreakzio emozionalaz jabetzen da.				
Emozio guztiak onargarriak direla ulertzen du.				
Bakoitzaren jarrerak besteengan eragina duela ulertzen du.				
Emozioen garrantziaz jabetzen da.				
Emozio propioak eta besteen emozioak identifikatzeko gai da.				

Emozio ezberdinak ezagutu eta bereizten ditu.				
---	--	--	--	--

EBALUAZIO ORRIA (saio paliatiboak)				
Ikaslearen izena:				Oharrak
ADIERAZLEAK	0	1	2	
Pertsonaren oroitzapenak erabiliz onartzen du galera.				
Jarrera aktiboa du galeraren aurrean.				
Maite dugun pertsona baten heriotzak eragin dituen sentimenduen adierazpena eta elkarrizketa sustatzeko gai da.				
Talde lanean egoki aritu da, gainontzeko ikaskideak errespetatuz eta ideiak emanez.				
Heriotzaren osteko sentimenduak modu egokian adierazteko gai da.				
Eskeinitako ideiak edo baliabideak baliatu ditu heriotza onartzeko edo dolua gainditzeko.				
Bere dolu-prozesuaren garapenaz ohartzen da.				
Emozioak eta sentimenduak adierazten ditu dolu-prozesuan zehar.				